

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

525.000 euroko laguntza emango zaie beste herri batzuetako ikasleak hartzeko ikastetxeak dituzten 36 udalerriri

3.380 ikasle hartzea dakartzan garraio eta jantokiko aparteko gastuak konpentsatuko dira, horrenbestez

Miércoles, 04 de marzo de 2015

Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu du gaurko bilkuran eta, haren arabera, 525.000 euroko diru-laguntza emango zaie beste herri batzuetako ikasleak hartzeko ikastetxeak dituzten 36 udalerriri (eskola-kontzentrazioen titularrak direnei); 3.380 ikasle hartzea dakartzan garraio eta jantokiko aparteko gastuak konpentsatuko dira, horrenbestez

Haur eta Lehen Hezkuntzako zenbait ikastetxetan udal bereko beste herri edo kontzejuetako ikasleak derrigorrez eskolatzen dira, ikastetxerik ez dutenak ikasle gutxi daudela-eta; beraz, eskola-kontzentrazioetat jotzen dira.

Ikasleen batez besteko kostua erabakitzeke orduan, eskolatutako ikasle bakoitzeko 150 euro finkatzen da, bizi den lekuan ez beste udalerriri batean eskolatuta badago. Zifra hori 300 eurora igotzen da ikasleko, beste herri batzuetako ikasleen % 80 edo gehiago hartzen dituzten zentroko entitate titularrentzat, baldin eta bere herriko ikasle-kopurua % 25 baino txikiagoa bada.

Jarraian zehazten dira, alfabetikoki ordenatuta, zentroetako titularrak diren toki-erakundeak, beste udalerriri batzuetatik hartzen dituzten ikasle-kopurua, eta zenbat ordainduko zaien:

Antsoain: 159 ikasle, 23.925 euro; **Agoitz:** 53 ikasle, 7.975 euro; **Aranguren (Mutiloa):** 25 ikasle, 3.761 euro; **Barasoain:** 54 ikasle, 8.125 euro; **Basaburua (Jauntsarats):** 82 ikasle, 12.338 euro; **Baztan (Elizondo):** 33 ikasle, 4.965 euro; **Beriain:** 47 ikasle, 7.072 euro; **Berriozar:** 109 ikasle, 16.401 euro; **Betelu:** 72 ikasle, 10.401 euro; **Cascante:** 17 ikasle, 2.558 euro; **Erro:** 12 ikasle, 1.805 euro; **Lizarra:** 382 ikasle, 57.480 euro; **Esteribar:** 89 ikasle, 13.392 euro; **Etxarri-Aranatz:** 73 ikasle, 10.984 euro; **Garralda:** 48 ikasle eta 14.445 euro; **Goizueta:** 17 ikasle; 2.558 euro; **Huarte:** 132 ikasle, 19.862 euro; eta **Irurtzun:** 204 ikasle, 30.696 euro.

Honako hauek ere barnean daude: **Leitza:** 6 ikasle, 902 euro; **Lekunberri:** 97 ikasle, 14.595 euro; **Los Arcos:** 57 ikasle, 8.576 euro; **Irunberri:** 8 ikasle, 1.203 euro; **Noain (Elortzibarra):** 100 ikasle, 15.047 euro; **Otsagabia:** 43 ikasle, 6.470 euro; **Olatzagutia:** 5 ikasle, 752 euro; **Erriberri:** 7 ikasle, 1.053 euro; **Orkoien:** 222 ikasle, 33.404 euro; **Gares:** 173 ikasle, 26.031 euro; **Erronkari:** 61 ikasle, 18.357 euro; **Zangoza:** 46

ikasle, 6.921 euro; **Doneztebe**: 180 ikasle, 27.085 euro; Tafalla:50 ikasle, 7.523 euro; **Ultzama (Larrainzar)**: 199 ikasle, 29.944 euro; **Viana**: 11 ikasle, 1.655 euro; **Atarrabia**: 199 ikasle, 29.944 euro; eta **Zizur Nagusia**: 308 ikasle, 46.345 euro.